Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

**Akta zenbakia:** 13/2008
**Bilera data:** 2008-11-26
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:15- 20:00
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 13/2008
**Fecha:** 26-11-2008
**Tipo de reunión:** Pleno Ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:15 – 20:00
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**
Mertxe Zapiain Intxausti
Juan M. Tomasena Alzuri
Hermenegildo Gonzalez Moran
Consuelo Frutos Gonzalez
Jose Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguia
Maria Isabel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizabal Eguia
Gotzone Astiasaran de Miguel
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Reunidos:**
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Concejales:**
Mertxe Zapiain Intxausti
Juan Mª Tomasena Alzuri
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
Nerea Sayavera Urchueguía
Maria Isabel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizábal Eguia
Gotzone Astiasaran de Miguel
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Bitarteko idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza

**Aztergaiak:**

1.- Alkatetzako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

2.- 2008ko lanpostuen zerrenda hasieran onartzea

3.- Galderak eta eskaerak.

**Orden del día:**

1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

2.- Aprobación inicial de la Relación de Puestos de Trabajo 2008

3.- Ruegos y preguntas.

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

**Presazko jotzea**

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du badela gai zerrendan sartu ez duten kontu bat: genero indarkeriaren kontrako adierazpena, hain zuzen ere

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren arabera, gai zerrendan beste gai bat sartzeko eta horren inguruan hartzen den erabakia baliozkoa izateko, presazko jo behar da lehendabizi.

Alderdi sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du bidali dioten idatziak anonimoa ematen duela; izan ere, ez dago sinatua eta ez zaio sarrerarik eman erregistroan.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du badela EUDELek onartutako dokumentu bat, eta hari atxiki dakiekeela. Bukatzeko esan du berak ere galdetu behar zuela nork bidali dien idatzi hori.

Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du kontrako iritzirik ez dagoenez beraiek interpretatu dutela iazko jarrera bera izango dela, errealitate triste hori badela eta beraiek horrekin konpromisoa dutela; beraz, lehendik onartutako akordioa berrestea litzateke.

Eztabaidaren ostean, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 13 (UDA 13, PSE-EE/PSOE 4, EAJ 3, Iñaki Mendizabal, Gotzone Astiasaran eta Xavier Sasiainbarrena).
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

**Pronunciamiento sobre la urgencia**

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que hay un asunto, el referente a la Declaración contra la violencia de género, que no se ha incluido en el orden del día.

Según lo señalado en el reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales, es necesario, para la inclusión de un asunto en el orden del día y así sea válido el acuerdo que se adopte la previa declaración de urgencia.

Toma la palabra el portavoz del partido socialista Hermenegildo González para señalar que el escrito que les ha sido remitido parecía un anónimo puesto que no está firmado ni se le he dado entrada en el registro.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero señalando que hay un documento aprobado por EUDEL, al cual podríamos adherirnos. Termina señalando que ella también iba a preguntar quién les había remitido el escrito referido.

Toma la palabra Iñaki Mendizábal señalando que al no haber opiniones en contra ellos han interpretado que la posición es la misma que el año pasado, que la triste realidad existe junto con su compromiso, por lo que sería una reafirmación del acuerdo adoptado anteriormente.

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, Iñaki Mendizábal, Gotzone Astiasaran y Xavier Sasiainbarrena.)
En contra: 0
Abstenciones: 0

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa**.- Gai zerrendan adierazpen hau sartzea: AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

**Primero**.- Aprobar la inclusión en el orden del día del asunto referente a la DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE – DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.

**1.- Alkatetzako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko irailaren 3 eta 9ko eta 2008ko urriaren 1, 15 eta 29ko bilkuretako akten berri eman zaie Udalbatzako kideei; beraz, jakinaren gainean gelditu dira.

**1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.**

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local los días 3 y 9 de septiembre de 2008, los días 1, 15 y 29de octubre de 2008, de modo que han quedado informados.

**2.- 2008ko lanpostuen zerrenda hasieran onartzea**

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta 2008ko azaroaren 24ko Langileria informazio batzordean azaldutako proposamenaren berri eman du.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

13 (UDA 13, PSE-EE/PSOE 4, EAJ 3, Iñaki Mendizabal, Gotzone Astiasaran eta Xavier Sasiainbarrena).
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

**2.- Aprobación inicial de la Relación de Puestos de Trabajo 2008**

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre para dar cuenta de la propuesta tratada en la Comisión Informativa de Personal de fecha 24 de noviembre de 2008.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, Iñaki Mendizábal, Gotzone Astaiasaran y Xavier Sasiainbarrena)

En contra: 0
Abstenciones: 0

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

Ikusirik 2008ko azaroaren 24an egindako Kontratazio eta Langileria informazio batzordean gai horri buruz eztabaidatu eta informatu zela.

Visto que en las Comisión Informativa de Contratación y Personal celebrada el día 24 de noviembre de 2008 se debatió e informó sobre este tema.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

**Lehenengoa**.- Urnietako Udaleko lanpostuen zerrenda hasieran onartzea; espedientean sartuta dago zerrenda hori.

**Bigarrena**.- Hasieran onartutako zerrenda hori informazio publikorako argitaratzea, baliozko 15 egunean, GAOn iragarki bat argitaratuta, interesatuek aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko modua izan dezaten.

Adierazitako informazio aldia igaro eta alegaziorik izan ez bada, behin betikotzat joko da, horren gaineko beste erabakirik hartzeko beharrik izan gabe.

### ACUERDO

**Primero**.- Aprobar inicialmente la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Urnieta, que consta en el expediente.

**Segundo**.- Publicar dicha aprobación inicial para información pública durante el plazo de 15 días hábiles, mediante anuncio insertado en el BOG, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar reclamaciones al Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado alegación alguna, se tendrá por aprobada definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

- ***Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala – Emakumeen indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna* izeneko Eudelen adierazpenari atxikitzea.**

Gai zerrendan sartzea onartu eta gero, udalbatzak aho batez hartu du honako

- ***Adhesión a la Declaración institucional 25 de noviembre Día internacional contra la violencia hacia las mujeres aprobada por EUDEL.***

Una vez aprobada su inclusión en el orden del día, el Pleno por unanimidad de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

**AKORDIOA**

Lehenengoa.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – EMAKUMEEN INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA izeneko adierazpenari atxikitzea.

3.- Galderak eta eskaerak

Udaleko talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du jakin dutenez Euskaltel 2,32 euro kobratzen ari dela Urnietan telebista zerbitzua emateagatik, baina ez denei, baizik eta toki batzuetan bakarrik. Areago, Euskalteleko abonatu ez diren batzuei ere ordainagiriak bidali dizkiete, eta herritar horiek ordainagiriak itzuli dituztenean ohartarazi diete ordaintzen ez badute zerbitzua etengo dutela eta horren berri diru betebeharrak betetzen ez dituztenen fitxategiari emango diotela. Adierazi du helbideratzeak ere izan direla, kaltetuak ezer jakin gabe eta aldez aurretik jakinaren gainean jarri gabe; beraz, baliteke Datuak Babesteko Legea urratu izana. Amaitzeko, esan du Berrasoetan garai batean bazirela antena paraboliko batzuk auzo osoari telebista zerbitzua ematen zietenak, eta orain edo Euskalteli ordaintzen diote edo ez dakite zer gertatuko den. Kontu honek herri osoari eragiten dio, eta konponbideren bat emateko prest egon beharko lukete. Alkateari eta gobernu taldeari galdetu die ba ote duten ezer pentsatua kontu hori konpontzeko.

Miguel Izaguirre alkateak erantzun dio hainbat kexa iritsi zaizkiela eta kontsultak egin dituztela kontu hori zer den jakiteko. Adierazi du azken 12 urteetako etxeek zuntz optikoaren bidez funtzionatzen dutela. Zuntz hori Euskaltelen esku gelditu zen, berarekin izenpetutako

**ACUERDO**

Primero.- Adherirse a la DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE – DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.

3.- Ruegos y preguntas.

Toma la palabra el portavoz del Grupo municipal socialista Hermenegildo González que pasa a señalar que están teniendo conocimiento de que en Urnieta se está cobrando por parte de Euskaltel la prestación del servicio de la televisión de un importe de 2,32 €, no a todos, sino en algunas zonas .Incluso han emitido recibos a gente que no estaba abonada a Euskaltel y habiéndose devuelto los mismos se han recibido advertencias de que en caso de no pagar procederán a la suspensión del servicio y que el impago será comunicado a un Fichero sobre incumplimientos de obligaciones dinerarias. Señala que incluso ha habido domiciliaciones sin previo aviso ni conocimiento del afectado lo que podría dar lugar a una infracción de la Ley de Protección de Datos.Para finalizar señala que en Berrasoeta en su día existían unas antenas parabólicas que daban servicio de la televisión a toda la barriada y que ahora o pagan a Euskaltel o no saben lo que aquí puede pasar. Se trata de un tema que afecta a todo el municipio y que deberían de estar en disposición de plantear alguna solución y pregunta al Alcalde y al equipo de gobierno si tienen algo pensado para solucionar este tema.

Le contesta el Alcalde Miguel Izaguirre señalando que les ha llegado varias quejas y han estado realizando consultas para enterarse de qué va el asunto. Señala que las edificaciones de los últimos 12 años funcionan a través de la fibra óptica que pasaba a manos de Euskaltel a través

## 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

hitzarmenaren bidez. Sortu diren arazoetako bat da zer gertatuko den Euskaltelera abonatu nahi ez duen jendearekin eta ze "betebehar" dituen Udalak kontu horretan. Garbi dago Udala behartuta dagoela antenak kenarazi zizkioten etxeetako bizilagunekin, baina zer gertatzen da inoiz antenarik izan ez duten auzoekin? Adierazi du berak ezin diela oraindik arazo horiei erantzunik eman, eta zailtasunak izaten ari dela Euskalteleko arduradunekin harremanetan jartzeko.

del Convenio suscrito. Entre los problemas que han surgido está qué pasa con la gente que no se quiere abonar a Euskaltel y qué " obligaciones" puede tener el Ayuntamiento. Lo que está claro es que el Ayuntamiento sí está obligado con aquellos edificios a los que se le hicieron retirar sus antenas, pero ¿qué pasa con aquellas comunidades que no han dispuesto nunca de antenas? Señala que él no puede contestar aún a estas situaciones y que está teniendo dificultades para poder ponerse en contacto con los responsables de Euskaltel.

Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du oso kezkatuta dagoela ordainketa horien helbideratzeekin eta Udalak lege aldetik berrikusi egin beharko lukeela. Nabarmendu du zezenari adarretatik heldu behar zaiola, eta azkar gainera, jendea kikilduta sentitzen baita Euskaltelen jarduteko moduagatik. Adierazi du konponbideren bat eman behar dela Euskaltelera abonatu nahi ez dutenentzat.

Toma la palabra Hermenegildo González señalando que le preocupa mucho el tema de las domiciliaciones de los pagos y que desde el Ayuntamiento debería de hacerse una revisión legal al respecto. Recalca que hay que coger el toro por los cuernos y rápido además, porque además la gente se siente intimidada por el modo de proceder de Euskaltel.Recalca que hay que dar alguna solución para los que no se quieren abonar a Euskaltel.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du ez zeukala salatutako gertakari horien berri, eta horri buruzko batzorde bat egitea nahiko lukeela, edo behintzat bozeramaileen batzar batean hitz egitea. Adierazi du Euskaltelekin izenpetu zuten hitzarmena onartzeko akordioan Urnietako Udalak konpromisoa hartu zuela Euskaltelen bezero izan nahi ez zuten urnietarrek kate orokorrak doan ikusteko modua izan zezaten.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero señalando que desconocía los hechos denunciados y que sí les gustaría que se hiciera una Comisión expresamente con ese tema, al menos en una Junta de Portavoces. Señala que en el acuerdo de aprobación del Convenio a suscribir con Euskaltel, sí se recogía el compromiso del Ayuntamiento de Urnieta a que aquellos urnietarras que no querían ser clientes de Euskaltel pudiesen ver las cadenas generalistas gratis.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta eskatu du, batetik, Hirigintza informazio batzorde bat egitea, gai hauei buruz hitz egiteko:

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero que solicita, por una parte, la celebración de una Comisión Informativa de urbanismo para tratar los siguiente temas:

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRARENA AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

a) Berrasoetako lurren okupazioa
b) Miraballes baserriko bidean egin diren esku-hartzeak zigortzeko espedientea
c) Azkorteko 4. zenbakiko lokala-bulegoa

a) Ocupación de los terrenos de Berrasoeta
b) Expediente sancionador sobre las actuaciones en el camino del cº Miraballes
c) Local-oficina sito en Azkorte nº 4

Bestalde, lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren kontra aurkeztu diren alegazioei buruzko informazioa eskatu du, bai eta jendaurreko azken erakusketan Hiri Antolamendurako Plan Nagusia hasieran onartzeko dokumentuaren gainean aurkeztu diren alegazioen kopiak ere. Amaitzeko, adierazi du aurrekontuen gaia ere jorratzeko daukatela.

Solicita así mismo, información sobre las Alegaciones que se han presentado contra la ordenanza reguladora del cambio de uso de locales a viviendas y copias de las alegaciones presentadas al documento inicial del Plan general de Ordenación urbana presentadas en el último período de exposición pública. Finaliza la exposición señalando que está pendiente el tema de los Presupuestos.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ezohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean, arratsaldeko zortziak eta hogeita bostean, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las ocho de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorta Elorza
Bitarteko idazkaria

Sin.: Mikel Izagirre Rekondo
Alkate-lehendakaria

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

## ANEXO.I

***"DECLARACION INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE- DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES***

*Un año más, con motivo del Dia Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, el Ayuntamiento de URNIETA quiere hacer pública su denuncia y su compromiso de seguir trabajando contra la lacra social que supone la violencia machista, y que persiste también en nuestro Municipio.*

*Sabemos que en el origen de la Violencia contra las Mujeres se sitúa en un patrón de conducta sociocultural, profundamente arraigado en la conciencia colectiva, y aprendido fundamentalmente a través de la socialización diferencial y desigualitaria de chicas y chicos, en la que se configuran, se transmiten, interiorizan y expresan los roles y estereotipos de género, y que se réfuerza, a su vez, a través de procesos de legitimación social y cultural de la propia violencia . Para lograr erradicarla, es urgente y necesario lograr desvincular el aprendizaje de ciertos modelos de masculinidad y feminidad con el ejercicio y/ o la legitimación de la violencia contra las mujeres planteando alternativas basadas en una educación para la igualdad, en la promoción de relaciones afectivas sanas basadas en la equidad y el desarrollo integral de personas autónomas, libres e iguales.*

*Este año, queremos poner la atención en las relaciones violentas hacia las chicas adolescentes, sector que a menudo olvidamos en las iniciativas que desarrollamos en esta materia. Además, los últimos estudios nos muestran que las mujeres víctimas de la violencia sexista son cada vez más jóvenes. Esta violencia se ejercita a través de métodos como la intimidación, la agresión física o el abuso pero también a través de formas más sutiles como el aislamiento, el chantaje emocional, la manipulación, la desvalorización, el acoso y sobre todo el control, aspectos que son más difícilmente identificables por las chicas y los chicos en sus relaciones afectivas.*

*Consciente de todo ello, este Ayuntamiento*

*ASUME EL COMPROMISO de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres poniendo especial atención en la violencia contra las chicas jóvenes y adolescentes, contando con la participación activa de éstas.*

*INVITA a la ciudadanía, y de manera muy especial a las chicas y chicos del municipio a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.*

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2008KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2008

## I.ERANSKINA

***"AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA***

*Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, URNIETAko Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.*

*Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektiboan sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzen, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rolak eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kulturaleko prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia hori desagerrarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan. berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.*

*Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste, beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere, biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.*

*Horren guztiaren jakitun, Udal honek*

*ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien partehartzea aintzat hartuta.*

*GONBIT EGITEN DIE hiritar guztiei, eta, bereziki, udalerriko neska eta mutilei azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.*